

...eta

# kitto!

883 zkio.  
2014-III-21



**Ez dago  
TRUKORik!!!**



## KOMUNITATEEN

ADMINISTRAZIOA

Tel: 943 70 25 40

**KOMUNITATEAK**

- Auzo komunitaen administrazioa
- Etxebizitzak, garajeak, industriak...
- Jaurlaritzaren dirulaguntzen tramitazioa

**AHOLKULARITZA**

- Fiskala
- Laborala
- Kontabilitateak
- Aseguruak



# euskararen transmisioa

# MINTEGIA

# egitaraua

2014ko  
maiatzak 6  
astearta

EIBAR  
Portalea  
Kultur etxea

- 08.45 - 09.00: Akreditazioa eta dokumentazioa.  
09.00 - 09.15: Ongi- etorria.  
09.20 - 09.55: *"Hizkuntza eta burmuinaren arteko elkarrizketa"*  
Saioa Larraza (BCBL).  
10.00 - 10.25: *"Kiribilduz: familia transmisioaren proiektuaren bila"*  
Naiara Martin (Elgoibarko Izarra).  
10.30 - 10.55: *"Gazteen euskararen erabilera Eibarren"*  
Ainara Lavado (...eta kitto! Euskara Elkartea).  
11.00 - 11.40: *"Ikasle etorkinak eta euskararen ikaskuntza eskolan"*  
Ibon Manterola (EHU).  
11.45 - 12.00: ATSEDENA  
12.05 - 12.30: *"Euskararen transmisioa familietan Nafarroako ahozko ondarean oinarrituta: Xaldun Kortin. Jolastu gurekin!"*  
Maite Lakar eta Patri Arburua (Euskokultur Fundazioa / Bortziritako Euskara Mankomunitatea).  
12.35 - 13.00: *"Transmisioa: Aiaraldetik dekalogo bat"*  
Eduardo Fraile (Amurrioko Aresketa Ikastola).  
13.05 - 13.50: *"Familia euskarari iraunarazteko egungo estrategietan"*  
Paula Kasares (UPNA).  
14.00 - 15.35: BAZKARIA  
15.40 - 16.20: *"Zer, nori, nor"*  
Asier Arrieta (EHU)  
16.25 - 17.50: Mahaingurua.  
Dinamizatzailea: Jaime Altuna (Urtxintxa Eskola).  
17.55 - 18.00: Agurra.

Antolatzailea:



Euskara Elkartea

Babeslea:



Laguntzaileak:



## IZEN EMATEA

Martxoaren 31tik apirilaren 30era  
(25 €, bazkaria barne)

Informazioa: 943 20 09 18  
normalizazioa@etakitto.com



## ASTEAN ESANAK

"Gaur egungo aktoreak ez al dira konturatzen euren fisikoa mugatzen dutela, eta betiko egiten dituzten zulo edo gorputz margotuak edozein jatorri, mota eta garaitako pertsonaiak antzezteko oztopoa besterik ez direla? Inkonszientek: ezin lepoa erakutsi, ezin biluzi, makillajearekin estaltzen ibili behar"

(ANE MUÑOZ, KAZETARIA)

"Bilboko Arte Ederren Museoa azken hamar urteetan ez diote bakarkako erakusketa bat bera ere eskaini emakumezko artista bati. Eta 48 egin dituzte. Esango dizute hiru antolatu dituztela, emakumeak protagonista zirenak; baina horietan emakumea gaia izan da, ihesa edo pobrezia izan daitezkeen eran. Eta emakumea ez da gai bat, subjektua da: justu gizartearen erdia!"

(HAIZEA BARCENILLA, ARTE KOMISARIOA)

"Biktimei, aurrera egiten lagundu beharrean, bizi osorako biktima izaten lagutzen diete. Gainera, ahaztea positiboa da. Beti oroitu gara gauza batzuez: bizitzan pasatzen zaizkigun gauza txarrak ahaztuko ez bagenitu, ez ginatete biziko"

(JESUS EGIGUREN, POLITIKARIA)

"Katalunian euskal jendea dioten itzelezko miresmenak harrizten nau oraindik, deseroso sentiarazi arte. Juzgatu egiten naute: zintzo, langile eta atsegina naiz. Ez dute uste tipo gaizto edo xuhurra izan naitekeenik. Eta ez dut gustuko"

(ANGEL ALDARONDO, GIDOLARIA)

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

**KAKUTS.-** Ezgauza, hutsaren hurregoa. Tonto esateko ere balio du. "Onutsa onutsa, kakutsa".

**KALAMATRIKA.-** Maltzurkeriaz eta amarruz esandakoari edo egindakoari buruz esaten da.

Gaztelerazko 'gramática parda'. "Kalamatrikako maistria zonan ha, gure azuzoko durangoarra".

## eskutitzak

### IKASLE GREBA OROKORRA MARTXOAREN 27-AN!

Gobernutik jasotako lege proposamenak ez dira kasualitatea; ez da zerbait isolatua. Hezkuntzaren pribatizazio eta merkantilizazio prozesuaren baitan programatutako pausoen legezko forma hartzeko proposamena delako. Datorren ikasturteari begira EU2015 (unibertsitateko Bologna Legearen jarraipena), LOMCE eta Heziberri (Eusko Jaurlaritzak LOMCE legeak uzten dituen zirrikituak aprobetxatuz osatzen diharduen "eusko labeldun LOMCE-a" gure ikastetxe eta herrietan ez aplikatzea eta gure hezkuntza sistema propioa eraikitzea dira gure helburuak.

Egoera horri behar bezala aurre egiteko, eskola komunitatearen eta herritarren gehiengo zabalaren inplikazioa eta konpromisoa funtsezkoa dela jabe-

tuta, borrokaren lehenengo hazia jartzeko urratsa emango dugu martxoaren 27an. Egun osoko egitaraua burutuko dugu, hainbat manifestazio direla medio. Eguerdiko 12.00tan, Untzaga plazan hasi eta **Ikasle Martxa** egingo dugu eta, arratsaldeko 19.30-etan, **Manifestazioa** egingo dugu, plaza beretik abiatuta. Ikasleez haratago, Eibarko mugimendu, antolakunde, sindikatu eta norbanako bakoitzari, egindako egitaraua eta mobilizazioetan parte hartzeko gonbidapena egiten dizuegu.

Erasoei behar bezalako erantzunga eman behar diegu herri bezala! Denon artean lortuko dugu! Ekin geroa marrazteari! Ekin Euskal Eskola Nazionalari!

**EIBARKO IKASLE MUGIMENDUA**



Euskara Elkarteak

**ARGITARATZAILERA:** ...eta kitto! Euskara Elkarteak. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

**Astekarioraren E-MAILak:** [erredakzioa@etakitto.com](mailto:erredakzioa@etakitto.com) / [komunikabideak@etakitto.com](mailto:komunikabideak@etakitto.com) / [publizitatea@etakitto.com](mailto:publizitatea@etakitto.com)

**E-MAILak:** [elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com) / [normalizazioa@etakitto.com](mailto:normalizazioa@etakitto.com)

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Carlos Truko

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU  
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDETZA)

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



## Lantalde proiektua abiarazteko jardunaldixa

Eibar eta inguruko enpresa txikixen arteko alkarlana bultzatzeko asmuarekin, Lantalde izeneko proiektua abiarazi dabe Udalak eta Gesgunek eta, proiektua ezagutzera emon nahixan, jardunaldixa egingo da Armerixa Eskolan, apirilaren 4an, 09.30xetatik 12.30xetara. Eguaztenian horren barri emoteko egindako prentsaurrekuan azaldu ebenez, jardunaldixak zati bi eukiko dittu: lehelenguan proiektuaren aur-

kezpena egingo dabe eta bigarrenian, berriz, parte hartzeko izena emoten dabenen arteko lehelengo hartuemonak egitten juateko lantaldiak osatuko dittue. Oñ arte 20 enpresak emon dabe jardunaldixan parte hartzeko izena, baiña interesa dakenak oindiok be horretarako aukeria dake, info@gesgune.com hel-



Mariajose Telleria, Esther Velasco eta Miguel de los Toyos. SILBIA HERNANDEZ

bidera idatzitta edo 653-709150 telefono zenbakira deittuta (Esther Velasco). Parte-hartzia duan da, baiña an-

tolaketarako biharrak erraztiarren alde aurretik izena emotia komeni dala azpimarratu dabe arduradunak.



## Txosnia eta metruen salmenta asteburuan

Gure Esku Dago / San Blas Zati Bat taldekuak txosnia ipiñiko dabe Untzagan asteburuan, zapatuan goiz eta arratsalde (12.00xetatik 15.00xetara eta 19.00xetatik 21.00xetara) eta domekan goizez bakarrik. Pintxuak eta edarixak ez eze, ekaiñaren 8xan egingo dan giza katian parte hartzeko metruak eta bestelako materixala (kamisetak...) saltzen egongo dira, ekimena ezagutzera emoteko kanpaiñaren barruan antolatu daben ekitaldixan. Horrekin batera, hilla- ren 29xan Bilbon egingo dan jaialdira jua nahi dabenendako autobusak antolatzen dihardue (txartelak 6 euro balixo dau eta 16.00etan Ego-Gaiñetik urtengo dabe) eta interesa dakenak bertan egongo diran arduraduneri izena zuzenian emoteko aukeria eukiko dabe. Hortik aparte, metruak erosteko aukeria dago Kultun, astelehenetik barixakura 11.00xetatik 12.00xetara (martitzen- tan, 19.00xetatik 20.00xetara be) eta Deporren, barixakuetan 19.00xetatik 20.00xetara.



## 40 zuhaitz landatu dittue Usartzan

Aurreko asteburuan Zuhaitz Egunaren harira antolatutako jardueretan parte hartu eben 200 bat laguneri "eskerrik beruena"

azaldu nahi detse udalak, "baitta Klub Deportibokueri be, ekitaldixan emondako laguntasunarengaittik". Gaur Basuen



Landare eta Lora Azokia egon zan zapatuan Urkizun. MAIALEN BELAUSTEGI

Naziñoarteko Eguna da eta, horren aitzakixarekin, aurreko zapatuan goiz osuan Landare eta Lora azokia egon zan martxan Urkizuko partian, udalak Debemen eta Debegesarekin batera antolatuta. Eta domekan Usartza aldian bertako arbolak landatzen jardun eben ume eta guraso morduak, Deporrekua lagunduta. Danera 40 zuhaitz, 20 pago eta 20 lizar landatu zittuen parte hartzera animau ziran 200 bat lagunak.



## Muturreko kirolen jardunaldixak



Xtremo Norte aldizkarixaren ekimenez, muturreko kirolen inguruko "Ekitea Xtremo Norte" jardunaldixak egingo dira gaur eta bixar. Atzo presentau zittuen egun bixetarako antolatu dittuen jarduerak: gaur 15.00etatik aurrera hainbat hitzaldi eta proiektiño eskinduko dittue Eibarko Unibersidade Laboralian. Eta zapatuan Errebalen (12.30xetatik 15.00etara) eta Debako hondartzan (09.30xetatik 12.00xetara) muturreko kirolen erakustaldixak egingo dittue (slackline, enduro, acroyoga, skate, salto BASE, wingsuit...). Arratsaldian, 18.00xetatik aurrera, holako kirolen inguruko 10 proiektu presentauko dittue, horrek be Unibersidade Laboralian eta jarraixan "Next Stop Greenland" dokumentalaren proiektiña eta lantaldiarekin solasaldixa egingo dira, bestiak beste. Dana duan izango da eta ordutegi zihetzak 20. orrialdian, agendan topauko dittuzue.

## autuan

### ETXEBIZITZA ZERGA

Udalak apirillaren 4ra arte luzatu dau hutsik dagaizen etxien OHZ (IBI) zergaren errekaruari alegaziñuak egitteko epia, errekarua ez aplikatzeko eskaera mordua jasotzen diharduela ikusi dabelako.



### URBANISMUAZ BERBETAN

Ez Dok tabernakuak musikarekin lotutako ekitaldixak ez eze, bestelako jarduerak antolatzen hasi dira: domeka arratsaldian, 18.00etatik aurrera hirigintzaz jardungo dabe berbetan gonbidapenari baietz erantzun detsen politikauk eta bertara juatera animatzen diran herritarrak. Debatia moderatzen Felix Morquecho kazetarixa egongo da.

## Iruzurraren kontrako sarian sartzeko eskaeria

EH Bilduk iruzurraren kontrako foru sarian sartzeko eskaeru detsa udal gobernuari, Gipuzkoan 42 udalek egin daberen moduan Eibarkuak be horren inguruko hitzarmena siñatzerana animauta. Ogasun eta Finantza Departamentuak iruzurrari aurre egitteko asmuari jarraituta informaziñua alkarri emoteko sistema iraunkorra osatu dau, hiru helbururekin: Ogasun Departamentuaren eta udalen eskumenak betetzen laguntzia, zerga iruzurraren kontrako biharra hobetzia eta herritarreri herri administraziñuen esku dagaizen datuak eta dokumentuak atzera be ez aurkezteko daken eskubidia ahalbidetzia. Eta, horretarako, informaziñua trukatzeko hitzarmen eredu barrixa preparau dabe.





Funeraria-Ehorzetxe  
**Mugica**

<p><b>EIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia</b> Funeuskadi Eibar: Otaola, 27</p>	<p><b>ELGOIBAR</b></p>  <p><b>Beilatokia:</b> SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)</p>
<p><b>Bulegoa Eibarko erdialdean</b></p>  <p><b>24 orduko zerbitzu iraunkorra</b></p> <p><b>943 20 19 51</b>   <a href="http://www.funeuskadi.com">www.funeuskadi.com</a></p>	
<p>Euskadiko Lehen Ehortze Taldea</p> 	

EMOTIONAL SUMMER CAMP

BILERA INFORMATIBOA!

Martxoaren 25ean, martitzenean,  
arratsaldeko 20.00etan  
Laboral Kutxan (J. Etxeberria, 15)

[www.idiomasnekanepastor.com](http://www.idiomasnekanepastor.com)  
[www.aprenderesdivertido.es](http://www.aprenderesdivertido.es)

943 20 13 93 | 943 53 04 86




- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta  
ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

☎ eta faxa: 943 70 14 97

Publi.resa@euskalnet.net

asteko  
2.637  
datua

bisita jaso zittuan  
Armagintzaren Museuak  
2013an, aurreko urtian  
baiño 50 bat gitxiago,  
tartian 525 ikasle, 81 irakasle,  
84 ikertzaile, 9 bisita-gidari,  
enpresa munduarekin  
loturia zeken beste  
99 bisitari eta 624 jubilau.



Mendiguren y Zarraua, Arragueta kalian.  
IRIGO ARTAMENDI

Mikel Aparicio arkitekto eibartarrak eraikiñ industrialen inguruko bere doktore tesixan biharrian dihardu. Bere ikerketaren ardatz nagusiñak Eibar-ko industria-eraikiñen datu-base zihetza sortzia, herriko patrimonixo industrialak sakon aztertzea eta etorkizunian hirigintza arluan hartu biharreko erabagixetarako bidiak finkatzia osatzen dabe. Arkitektuaren aurreikuspenari jarraituta, aurtengo ekitaldixan, bestiak beste, industria-eraikin guztieri buruzko datuak batzia, horren artian esanguratsuenak identifikau eta sailkatzia, eraikiñ industrialak oiñarri modura hartuta gure herriko billakabidia ikertzia, argazki-artxibuak astintzia, Udal Artxiboko eta Hirigintza sailleko datuak jasotzia, arkitektuen artxibo personalak aztertzea, taillarretan biharrian jardundakuak alkarrizketatzia eta beste hainbat egitteko asmua daka.



## Barixakuan abiatuko da Nagusixen Hamabostaldixa

Nagusien XXI. Hamabostaldixa gaur zortzi hasiko da, datorren barixakuan 12.00xetatik aurrera Portaleak hartuko daben ekitaldixarekin. Inauguraziño-ekitaldixan Miguel de los Toyos alkatia, Esteban Esteban (Durangoko Astronomia Ikasgelako zuzendarixa), Ana Rodriguez (udaleko Gizartekintzaburua), Jose Riviere (Gipuzkoako Jubilau eta Pensionisten alkatetako presidentia) eta Jose Ramon Gomez (Biztu Jubilau eta Pensionisten Koordinakundeko presidentia) parte hartuko dabe. Eta egun berian, baiña arratsaldian zabalduko dabe Untzagako jubilau etxian apirillaren 11ra arte ikusgai egongo dan erakusketia, Armerixa Eskolako Ikasle Ohien erretratuekin. Hortik abiatuta eta apirillaren 11ra bittartian era guztietako ekitaldixak egingo dira, antolatzailliak preparau daben programiari jarraituta.

## Liburutegixaren urteko txostena

Juan San Martin Liburutegixak 2013-ko txostena emon dau ezagutzera eta, hor jaso dabenez, "2013a urte berezixa izan da, 2012xan baiño bisita eta maillegu gitxiago izan dittugu-eta; baiña, halanda be, beste xede batzuetarako liburutegixaz egin dan erabilleria aurreko urtietan baiño askoz haundiagua izan da". Ikaskuntza etengabiaren inguruko jarduerak oso harrera ona izan dabe, batez be bestela liburutegixa modu tradizionalian erabiltzen ez dabenen aldetik. Arduranen berbetan, "ezohiko erabiltzaille hórrek proiektu beraren inguruan biltzera etorri dira: hizkuntzak praktikatzera edo aurretik aukeratutako irakurgaixak komentatzera, idazliak berak lagunduta edo irakurketa klubak dinamizatzen di-

ttuen pertsonak lagunduta. Ingelesa, frantsesa eta alemana praktikatzeko gela polibalentiak astero 75 lagun hartu dittu urtarrilletik ekaiñera bittartian eta 50 lagunek ingelesa praktikatzeko erabilli dabe azarotik aurrerako aste guztietan". Horrekin batera, gaztelera irakurketa klubian 30 lagunek hartzen dabe parte hillero eta ...eta kitto!-rekin alkarlanian urtarrillaz geroztik martxan dagan euskarazkoan, berriz, 15 lagun batzen dira hillero.



## PEDRO EGUIGUREN LARRAÑAGA


2014ko martxoren 12an hil zen,  
86 urterekin



FAMILIAREN IZENEAN, **ESKERRIK BEROENA**  
gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi  
eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.







*Asier Serranok liburu berria aurkeztu zuen aurreko barixakuan. Estilo ugari biltzen dituen "Abisalia" lanak botereari buruzko narrazio laburren bilduma da eta sentipen unibertsalen gune bilakatu du, eibartarraren unibertso literarioko ohiko pertsonaiei lekua eskainita eta bere betiko obsesioei eutsita. Kokalekua uharte bat da eta, ipuin eta poemekin, giro surrealista sortu du.*

**ASIER SERRANO (idazle eta musikaria):**

## **"Iradokitzailea da Abisalia, botereari buruz nire obsesioek hartu duten bidea"**

**- Zein helbururekin kaleratu duzu liburu berri hau? Ipuin liburu poetikotzat definitu dezakegu?**

Orain dela bost urte kaleratutako *Erlojugilea* eleberriarekin halako promesa bat egin nuen trilogia osatuko nuela esanez, hor sortutako mundu literarioak jarraipena izan zezan. Etika, boterea eta gerra izango ziren horko ardatz. Eleberrietako lana astunagoa da eta, tartean, arnas laburrago-ko *Hiri gorritik* eta *Desterratuen piztaria* egin ditut. *Abisalian* egitura berezi baten bila jardun dut, orri bakoitzak antzerako istorioak dakar, lip-dub nobela baten bidetik. Lehen hasi nuen bilaketa horretan jarraitzeko, entrenamendu moduan ipuin laburragoak erabili ditut, *Erlojugilean* aurkezten nuena osatzen joan direnak. Bigarren zati honetan boterea da ardatza eta bai poemak eta baita ipuinak ere, azken hauek txikiak zein handiagoak izan, hari bati jarraitzen diote.

**- Liburuak ordenean eta jarraian irakurtzea komeni dela diozu?**

Liburuak irakurtzeko, 12 kapituluak batera bisitatu beharrekoak direlakoan nago, ipuinak solteak izan arren. Hori proposatzen dut literaturan orkestra zuzentzailearena egitea gustoko ez badut ere. Liburuak, batez ere, iradokitzailea da. Norberaren barrenetan sartzeko gonbidapena egiten dut, nire unibertso literarioan betidanik jarraitu dudana bidetik.

**- Zure liburuak jarraitzen dituztenek izanongo dute ezustekorik *Abisalian*?**

Betiko pertsonaia marginalak eta bizarroak egin ditut protagonista: Lorelei bera, erlojugilea... hor daude. Obsesioekin jotzen dut, batez ere, eta hor, norberaren etxean begiratzeaz gain, mundu horretako ahuleziak ikusarazten ahalegindu naiz. *Abisalian* iraganera jotzen dut gehienbat, boterearen obsesioak hara eramanda: XX. mendera egiten dut jauzia, gobernu mota ezberdinei errepasso eginez. Estetika postkomunistak tokia du hor, baita diktadurak, eta asanbleak... gaur egungora heldu arte. Gai guztiak tratatzerakoan, jakina, prosa poetikoa erabili dut gehienbat.

**- Badago antzekotasunik Eibar eta *Abisaliaren artean*?**

*Abisaliako* hiriburua Hiri gorria da. Ez da kontu estetikoak bakarrik. Izen horien atzean gure egunerokoan bizi duguna dago eta baita ahalegina gutako edozeinen errealitatera gerturatzea. Batzuetan Hiri gorria bada Eibar, baina irakurleak bere hiri aukeratu behar du: 5-10 minutuko ipuinetan bakoitzak bere burua aurkitu behar du. Estetikoki ere, Eibarren zulo baten barruan bizi gara eta, puntu abisal batetik abiatuz, amildegitik ateratzeko gonbitea ere badago liburuan. Zuloaren zulotik ispilu efektuarekin ere jokatu dezakegu, aukera hori eskaintzen digulako.

**"Gehiago ikusten dut nire burua sortzaile moduan artista baino"**

**- Orain ere irakurleari eskaini dizkiozu pista eta joko batzuk, ezta?**

Liburuak egiturari badu jarraipen bat, jakina. Ez dakit gero horrela den, baina idazleok amesten dugu irakurleak behin baino gehiagotan irakurriko duela gure liburuak. Eta, pistak eskaintzeaz gain, joko batzuk ere proposatu ditut oraingoan. Horrela, lehenengo ipuina azkena izan daiteke, eta azkena lehenengoa. Horrek al-daketa dakar. Musikalitatea ere presente dago hor: gordina dena edertasunez janzteko, edo alderantziz, kasuaren kasuko.

**- Musika aipatzen duzula... azken aldiari baztertua izan duzu?**

Bai, nahiko; hala ere, beti jarraitu izan dut konposatzen, diskogintzaren negar kulturalen esparru horretan. Antxon Sarasua zarautzerra lagun dudala egin ditut gauza batzuk eta, bueltatzeko asmoa badut ere, beste modu batera izango da. Beldur gehiago ere badituz sasoi batean baino! Ni gehiago naiz sortzaile, artista baino. Orain, esaterako, *Abisaliako* soinua sortzen gabiltza, paperetik edan eta literatura egiteko. Proiektzio horretan *Abisalia* beste formatu batean ikustea nahi dugu. Mikel Urionaguena errealizadorea-ekin ere kortoa egin nuen, gero ausartu ez arren kalera ateratzera. Horregatik sartu dut gidoia liburuan, aukera berriak eskaini dizkidalakoan: formulak asmatu behar gero. Gustatuko litzaidake bakarkako lagunekin konpartitzeko aukera izatea halakoekin.





<http://carlostruko.wix.com/photography>

*Bizitza honetan baktaxari gustatzen jakona egittia ez da erreza izaten eta are gatzagua da oindiok persona batek dittuan zaletasunak uztartzia. Baiña ez da hori Carlos Truko gaztiaren kasua, berak bizitzan dittuan zaletasun nagusiñak, argazkilaritza eta patinajia primeran alkartzia lortu dau-eta. Berak kontau deskunez, "rollerblading" edo patinajiak geroz eta jarraitzaille gehixago daka gurian eta etorkizunian beste batzueri erakusteko eskolia sortzia gustauko litxakixo.*

## Eziñezko saltuak izozteko magia

**S**an Salvadorren jaixo zan gazte honek diñuanetz, "oso txikixa nintzala, umetatik gustau jataz irudixak, etxian topatzen nittuan aldizkari eta egunkarixetan eguazzen erretratuak begiratzen hasi eta, urtiekin, nere zaletasuna etenbarik hazten juan zan, benetan zaletu porrokatua bihurtzeraiño".

Prensako irudixak horrebeste erakarri dabela jakinda, erraz ulertu leike ikasketetan aurrera egiñ ahala, mundu horrekiko loturia billau izana: San Salvadorren, unibersidadian Komunikaziño Soziala eta Kazetaritza ikasi zittuan eta, berak aitortzen daben moduan, "ikasten neguala, argazki eta irudixekiko nere zaletasuna areagotu egin zan. Adierazteko bide barrixa zabaldu jatan pare-parian, nere kamaria erabillitta munduari beste modu batian begiratzeko aukeria nekala konturau nintzan eta, horrekin batera kamariaren beste aldian eguan momentua betirako 'izoztu' neikiala".

2008xan sorterrixa laga eban eta Bartzelonarako bidia

hartu eban Trukok, Institut D'estudis Fotografics de Catalunya dalakuan argazkilaritzari lotutako ikasketekin segitzeko asmuarekin eta, bixen bittartian, han eta hamen egindako lagunuen bittartez Elgoibarreraiño aillegau zan. Aldameneko herriraiño saltua emon eta Eibarren bizitzera geratziak ez zetsan aparteko ahalegiñik eskatu. Harrezkero gurian bizi da eta, oiñ arte behintzat, ez daka beste iñora juateko asmorik.

### Bizitzeko modu bat

Jende gehixenarendako patinetiak denporapasa baiño ez dira. Gehixen jota, umetan edo gaztaruaren lehen urtietan erabiltzeko jostailua izatera aillegau leikez, baiña hortik aurrera beste moduren batian ikustia gatxa egitten jaku gehixenori. Baiña, danian moduan, horretan be salbuespenak egon badagoz eta patinetiari bestelako garrantzixa emoten detsan baten bat ezagutzia gertatu leike lantzian behiñ. Eta Carlos Truko aittatu barri dogun salbuespen horretako bat da.





Gaztiak berak diñuan, "rollerblading-a nere bizitza da, aurrera egiteko motibaziña emoten desta, persona hobia izaten ahalegintzeko arrazoia, nere bizitzari zentzia emoten detsa eta lagun onak egiteko modu hoberik ez daguala pentsatzen dot, honetan zeu bakarrik ez zaguazela, mundu honen inguruan zeure moduko beste asko dabizela ikusten laguntzen detsu. Bizitza-filosofia da: erori, lurretik altxatu, ikasi, autokritika egiñ, aurrera egiten segitzeko kementa... horrek guztiak eta gehixago emoten detsuz patinajiak eta, zelan ez, horrekin danekin batera dibersiña!"

Eta esandako guztiak praktikara eruaten dittu gazte honek, bere zaletasun berbera daken beste lagun batzuekin batera Bilbo aldian ibiltzen dan bakotxian: "Egunaren araber jende gehixago edo gixiago batzen gara, baiña 30 bat lagun alkartzan gara normalian, alkarrekin patinatzen ibiltzeko. Euretako askok maila haundixa dake, konpetiziñuetan han eta hemen ibiltzen gara eta, urtiekin, mundu horretan ibiltzen garan guztiak alkar ezagutzera ailegatzen gara, nunbaitera juaten garan bakotxian ixa beti jende berbera topatzen dozu-eta".

Gazte honek 90. hamarkadan ekin zetsan serixo patinatziari eta harrezkero ahal daben guztietan horretan jarduten ahalegintzen da. Baiña gogua eukitta be, beti ez da posible izaten: "Sarrittan jausi eta

miñ hartzen dogu, horregaittik, lesiñuak sendatu eta atzera be patinatzen hasteko moduan egon arte, bestiak zelan patinatzen daben ikustera juaten gara gutariko asko eta holako tartiak aprobetxauta, holan ekin netsan laguneri erretra-tuak etaratzari".

Patinatzailliak egindako salto espektakularrak eta argazkilarixaren trebetasuna, bixak batzian lortzen dan emaitza benetan ikusgarrixa da, erretratuen egilliak aparteko meritotik emoten ez badetsa be: "Argi egokixa euki ezkerro, belozidadiarekin jokatzia besterik ez da bihar holako argazkixak egitteko. Egixa da praktikarekin gauza batzuk ikasten juaten zarala, fonduak dakan garrantzixaz jabetzen zoiaz, saltua nundik nora juango dan aurreikusi eta gitxigorabehera erretratua noiz egin kalkulatzen ikasten dozu... Bestelako efeko berezixak lortzeko lente eta filtruak erabiltzen dittut, ez dago beste misterixorik".

Horrekin bixekin batera, hirugarren zaletasun bat be badaka gaztiak: kuadruak margotzen dittu eta oin momentuan **San Juan kaleko Deika tabernan** bere lanen erakusketia dago martxan: "Ez dakit geldirik, ezer egin barik egoten eta, eurixa egitten dabenian ezin garanez patinatzeru juan, ba beste zeozer topau bihar neban denporia pasatzeko eta kuadruak margotzen hasi nintzan. Egixa esateko mordua egin dittut, hamen euri asko egitten dau-eta".





**Karrerria eta doktoraua amaittu barri dittu Ekhi Zugasti eibartarrak eta, beste ezertan hasi baiño lehen, motxila preparau eta mundua ezagutzera juan da. Otsaillaren 11n ekin zetsan abentura-bidaiari eta lehelengo geldialdixa Zeelanda Berrian egin dau. Gaztiari bere abentura horretan lagundu nahi detsanak, gaiñera, badauka horretarako aukeria, modu birtualian besterik ez bada be, hortikzihar.wordpress.com blog-ian eta Twitterren (@pekhines) biajiaren barri emoten juango da-eta.**

**- Zer dala-eta ekin detsazu horrelako abenturari?**

Denpora askuan buruan euki doten zeozer izan da. Nere famelizan be badare aurrekarixak! Nere aurretik arrebikiak holako zeozer egiñ eban 2008 urtian. Edozelan be, gaztiak garala mundua ikustia garrantzitsua dala begittandu jata beti. Beste kulturak zelan bizi diran ikustiak pertsonia aberastu egitten dau eta asko ikasten da. Horretarako modu asko dagoz. Nik bidaiaria batian murgiltzia aukeratu dot, baiña helburu bera lortzeko beste hamaika modu dagoz.

**- Zeren billa juan zara munduaren beste puntaraiño? Nundik nora ibiltzeko asmuak dakazu? Zergaitik aukeratu dittuzu hórek tokixok?**

Neria izango dan abentura baten billa juan naiz eta, lehen esan doten moduan, mundua ikustera, eta **bizitzera!** Asmuak baiño ez dira, baiña buruan Ozeania eta Asia ikusteko ideia

dakat. Oin dala gitxi ekin detsat bidaiari, otsaillaren 11n hain zuzen be, eta orduandik Zeelanda Berrian nago. Tokixak aukeratzia nahiko gatxa egin jatan... azken batian, munduko maparen aurrian jarri eta "nora juango naiz?" galderiari erantzutia ez zan erreza izan. Baiña bidaiatzeko dakaten denporia kontutan hartuta, ba hóretxek aukeratu nittuan.

**- Zelakua izan da oiñ arteko esperientzixa? Zeozerekin bereziki harrittu zara?**

Esperientzixa demasa da. Bidaiatzi az aparte, "bakarrik" bidaiatzi aukeratu dot, baiña egixa esateko sekula ez zagoz bakarrik. Jende morduia dabil munduan bakarrik bidaiatzen eta beti topatzen dozu bateronbat arratsaldia pasatzeko, zinera juateko edo bestelako planen bat egitteko. Topau dittudan paisaje desberdiñak albo batera lagata, zenbat aleman daguizen harrittu nau gehixen, hamen 18-20 urte bittarteko aleman morduia dago! Itxuria, euren herrixan oso normala da urte sabatiko bat hartzia unibersidadian hasi baiño lehen! Mundua alemanez beteta ei dago, Zeelanda Berria bai behintzat. Bestalde, Zeelanda Berrian bertan maori hizkuntzaren egoeria zelakua dan be harrigarrixa begittandu jata, euskeria baiño egoera larrixaguan dago.



Ekhi Zugasti  
(#HORTIKZIHAR)

## "Neria izango dan abentura baten billa juan naiz"

**- Bizitzen zoiazena kontatzeko bloga be badakazu, ezta?**

Bai, bloga egin dot (hortikzihar.wordpress.com) hillian behiñ-edo sarrera bat idazteko asmuarekin. Sarrera horretan egin dotena kontau eta argazki batzuk igotzen hasitta nago. Oiñ arte otsailleko sarria besterik ez dakat, baiña martxo amaieran bigarrena idatziko dot. Horrekin batera, "bakarrik" bidaiatziaren inguruko gogoetak lantziaren behiñ idatziko dittut. Bertan sartzia,

kukxueatzia eta idatzia libria da, beraz animau!

**- Abenturia amaitzian, zer ekarriko dozu etxera bueltan?**

Souvenir asko, jajaja!!! Ez, oin serixo. Etxetik urten baiño lehen batek esan zetan "zeure buruari erregalo bat egitten zabiz". Eta benetan pentsatzen dot holan dala. Bueltan, momentu on eta ez haiñ onekin betetako motxilia ekarriko dotela uste dot, eta ikasten dotenak etorkizunian balixokua egingo jatala dudarik ez dakat.



## Gazte-lokalak araudira egokitzeko diru-laguntza

Gazteen aisialdirako lokalak legezatzeko diru-laguntzak emateko deialdia onartu du Udalak, aste honetan bertan egindako Hirigintza batzordean. Gazteen Lokalak arautzeko Udal Ordenantza orain dela hilabete batzuk hasi ziren lan-tzen. Udalak egindako proposamena ezagutzera eman eta gero, gazteek proposamen horretan aldaketak egiteko aukera izan zuten eta, horiek guztiak jaso eta aztertu ondoren, ordenantzarako behin-betiko testua berriki onartu du udalak.

Martitzenean onartutako deialdiak herrian dauden gazte-lokalak legezatzeko eta



egokitzeko laguntzak ezartzen ditu eta orain Udalbatzarrak baieztatu beharko du.

Udaletik aurreratu digutenez, "diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak lokala legezatzeko beharrezkoa den inguru-

men memoria egiteko gastuak dira. Lehenengo deialdi honetan, udalak 30.000 euroko kontu-saila jaso du aurtengo aurrekontuetan, egon daitezkeen laguntza-eskaerei erantzun ahal izateko".

Diru-laguntza gazteek zein lokalaren ugazabak eska dezakete. Gazteek eskatuz gero, honakoak justifikatu beharko dituzte: taldean gutxienez 12 lagun daudela, erdia baino gehiago Eibarren erroldatuta daudela eta kideak 16-30 urte bitartekoak direla.

Diru-laguntzen zenbatekoa legeztapen proiektuaren gastuen %100 ordaintzeko erabiliko da eta ez da 800 eurotik gorakoa izango. Eskaerak aurkezteko epea maiatzaren 30-era artekoa izango da (Pegoran egin beharko dira, deialdiaren bete-beharretan zehaztutako agiriekin batera).

## Institutukoak Balenciaga Museoan eta eskiatzen

Ignazio Zuloaga institutuko 1. eta 2. mailetakoko batxilergoko ikasleak Getariko Balenciaga museoan egon ziren otsailaren 21ean. Diseinu, argazkilaritza eta batxilergo artistikoa ikasten diharduten ikasleei "oso aberasgarria" iruditu zitzaienten moda eta diseinuari eskainitako museoak, "batez ere horrekin lotutako ikasketak egin nahi dituzten ikasleei". Irteera biribiltzeko Getaritik Zarautzera joan ziren, Argazkilaritza Museoa ikustera.

Bestalde, Aratosten inguruko jai-egunak aprobeztatuz, martxoaren 3an eta 4an Jakan eskiatzen ibili ziren: "Candanchura bi-



dean, autobusetik zuri-zuri ikusi genituen Piriñoak eta ailegatzean pozarren jantzi genituen eskiak. Eguraldia lagun, eguzkipean pistetan gora eta, etxera bueltatu aurretik, Jakako hiriaz gozatzeko aukera ere izan genuen".



### JUAN LUIS ALEGRIA BUENO

(2014ko martxoaren 17an hil zen, 56 urterekin)

**SENIDEEN IZENEAN, eskerrik asko hileta-elizkizunera joan eta samin agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.**





# GREMIOEN GIDA

## ALTZARIAK

**SATMOBEL**  
ZURE ETXETIKO ALTZARIEN KONPONKETA ETA GARRAIOA

Eibar - Tlf: 608 076 054

## AROTZAK

**IÑAKI**

Egurrezko mota guztietako lanak    Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10    Tfnoa. 943 20 35 55

## ELEKTRIZITATEA

943 530 356    electricidad  
688 674 242    **alberto**

INSTALAZIOAK ETA  
instalaciones y mantenimiento  
MANTENIMENDUA

WWW.ELECTRICIDADALBERTO.COM  
dasilvaalberto@hotmail.es

## ANTENAK

**BALATZ** c.s.

Instalakuntzak eta konponketak  
antena - telebista

Bidebarrieta, 37    Tfnoa. 943 20 05 08  
balatz@euskalnet.net    Faxa. 943 20 04 94

**SUKALDE ALTZARIAK**  
\*  
**AROTZEGIA**  
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea    Tel. 943 20 29 27  
Tailerra: Apalategi auzoa    Tel. 943 12 01 92  
Mobila: 657 79 56 78

Ego-Gain, 9 ac.    ARGIZTAPENA,  
KONPONKETAK  
ETA INSTALAZIO  
ELEKTRIKOAK

**barra**    677 51 24 62  
943 20 06 97

Ego Gain, 2 - Bac    **trinmer**

Tfnoa. 943 12 73 50  
www.trinmer.com

**TELEKOMUNIKAZIOAN  
PROFESIONALAK**

**ulmar**  
S.L.  
metalezko eraikuntzak

aluminiozko eta PVC-ko aroztegia  
baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txonta, 30 - 1. eta behea  
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA  
EIBARREN, Ur-kizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

Tel. 610 532 922

**THELECER**

TELEKOMUNIKAZIOAK  
ELEKTRIZITATEA  
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK

24 orduko urgentziak

## ERAIKINEN MANTENUA

**I.T.E.** INSPECCION TECNICA DE EDIFICIOS

← →

ERAIKINEN IKUSKAPEN TEKNIKOA    **E.I.T.**

info@ajtoficina.com    tlf. 943 20 12 30

**AJT** Zihurtasuna s.l.p.  
Toribio Etxebarria, 4 behea A





# Informazio gehiagorako



943 20 67 76



## GARBIKETAK

**Limpieza Multiservicio Eibar**

Superficie mota guztietako garbiketa eta mantenimendu zerbitzua

Tfnoa. 943 254 615  
Mobila 688 609 171  
www.multiservicioeibar.com Barrena, 21 - 1. F

**TREJO GARBIKETAK S.L.**

Tel: 943-752557  
Faxa: 943-752556  
16 Postakutxatila - Soraluze

*Garbiketa eta mantenimendua*

## IGELTSEROAK

**CAMILO ALVAREZ** IGELTSEKITZA

OROKORREAN

- Barne erreformak (sukaldeak, bainugelak, leihoak etb.)  
- Gremioen koordinaketa

Jardiñeta, 25 - behea  
620 060 104 (Ernesto) / 600 465 789 (Fran)

**irazabal**  
Jose Maria Irazabal, S.L.

ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK  
IGELTSEKITZA ETA  
GREMIOEN KOORDINAKETA

eraikuntzak erreformak igeltsaritza

Azitain Industrialdea, 3 H Pabilioia  
Tfnoa. 943-120108  
www.irazabal.net

## ITURGINTZA

Gasa Kalefakzioa  
Klimatizazioa  
Eguzki Energia

**Jardines Iturgintza**

Tel. 943 206 913  
615 782 638  
615 782 637  
Fax. 943 254 929

Jardiñeta, 11 B  
fontaneriajardines@euskalnet.net

**MUGICA** ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,  
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,  
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN  
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSGRÖHE KANILEN BANATZAILEA  
ZORU ERRADIATZAILEA  
EGUZKI-ENERGIA

Egigurentarren, 18  
Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

## KRISTALAK

**ACHA Kristaldegia**

TAILERRA: ERREKATXU, 3an  
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK

info@cristeriaacha.com ERAKUSKETA  
eta faxa: 943 203 903 Arikitzaneko Zubian

## PINTURAK

DECORACIONES  
**AIXA**  
José Luis Mondo

Pintura orokorra  
Margotutako paperak  
Zoruen kolokazioa  
PVC zoruak  
Maketak  
Alfonbrak  
Kortinak  
Etixerakoak  
Osagarriak

Tfnoa. eta Faxa.  
943 20 05 94  
T. Etxebarria, 8 - behea

**baglietto** PINTUREAK

Zoru mota guztiak  
Pinturak  
Dekorazioa

Errebal, 21 Tel/Fax: 943 20 19 22

**PINTURAS ARRATE, S.L.**

- Nexa Autocolor
- Pintura industrialia
- 3M produktuen banatzailea

MATSARIA, 34 behea - A  
parrate@terra.es  
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

**MALVAR** PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea  
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900  
Mobila. 656 784 396

**VICTOR GONZALEZ FRAIZ** PINTURA OROKORREAN

BARNE eta KANPOko dekorazioa eta pintura,  
FATXADAK, PINTURA BEREZIAK,  
ENPAPELATUAK, GOTELÉ...

Bizkaia Etorbidea, 9 -ERMUA-  
696-565394 / 943-030540  
victor-fraiz@hotmail.com



## Julen Teran kadete mailako Espainiako atletismo txapelketan

Eibarko Klub Deportiboko atletak, neguko probetan lortutako markei esker, azken asteburuan Antequeran jokaturako kadete mailako Espainiako txapelketetan izan da. Lau probetan parte hartzeko markak izan arren (luzeran -5,88 m.-, altueran -1,70 m.-, 600 metroan -1'30"17- eta jauzi hirukoitzean -12,49 m.-), azken horretan ahalegindu zen bere onena ematen eta 6. postuan amaitu zuen, marka berria ezarri (-12,63 m.-).

Bestalde, Markel Gutierrez taldeki-deak (argazkian) Euskadiko txapela jantzi zuen orain dela egun batzuk bost kilometroko ibili edo martxako proban.



## Sukiako infantilek indartsu jarraitzen dute areto-foballean

Gipuzkoako ligako partiduan, Sukiarrak ederto egurtu zuten Uzturpe (12-1), hori lehenengo gola aurkariari sartu zutela. Liga amaitzeko bi jardunaldiren faltan, eibartarrak 4. postuari eusten diote eta txapelaren bila jarduteko aukera dute, azken play-offean sartzeko bosgarrenari hiru puntuko aldea kentzen baitiote. Maila bereko gure eskualdeko beste taldeak, Debabarrenak 1-11 galdu zuen Orixe A-rekin. Gipuzkoako kadeteetan, bestalde, Sukiak bina berdindu zuen Anoetako bigarren sailkatuaren kantxan.

...eta kitto! 14/III/21 • 883 zkia.

## Izagirre eta Varela igerilariak neurria eman zuten Zaragozan

Urbateko ordezkariak barixakutik domekara izan ziren Zaragozako nazioarteko txapelketan eta Nora Varelak, estareko, 200 bularrean Espainiako Open txapelketarako minimoa lortu zuen -Palman jokaturako txapelketa horretan estatuko igerilari onenak izango dira-. Eibarko igerilaria bigarren sailkatu zen 50 bularrean eta estilo bereko 100ekoan 3.a izan zen, gero deskalifikatu egin bazuten ere. Ander Izagirrek ere ez zuen kalerik egin libre erako



50, 100 eta 200 metrokoetan eta azken honetan lortutako markak, gainera, sailkapeneko bosgarren postura aipatu zuen.



Saritutako guztien irudia.  
MAIALEN BELAUSTEGI

## Aitor Zurdo nagusi Abascal-ean

Aurreko domekan jokaturako kadeteen mailako proba horretako 35. edizioan, Limousin Cartonajes taldeko txirindulariak aurea hartu zion azken metroetan Ulmako Ekaitz Txintxurretari eta lehena izan zen helmugaratzen. Hiru segundora zeharkatu zuen Urkizuko helmuga Xabier Murgiondok, po-

diumeako azken mailako jabeak. Taldekako sailkapenean Gaurua Renault nagusitu zen, gure bailarako onena Ciclos Iturriagako Jon Astigarraga izan zen eta Caja Ruraleko Eider Unanue izan zen lehenengo neska. Lehiakorren saria, bestalde, Irunez Klubeko Aitor Altunak bereganatu zuen.



## 60 lagun mugarriak bisitatzen

Aurreko zapatuan egin zuten Eibarko mugarriak ezagutzeko lehen etapa eta datorren zapatuan, hilaren 29an, egingo dute bigarrena, errekarren beste aldekoak ikusteko.



## Hierros Anetxeakoak nagusi Durangon

Zapatuan Durangoko Arripausuetan jokaturako errugbi norgehiagokan, eibartarrak 10-22 nagusitu ziren, atsedendira 5-15eko aldeko markagailuarekin erretiratu eta gero. Igor Martinek, Pablo Carmonak, Kepa Zamakolak eta Urtzi Abanzabalegik gauzatutako entseguak esker, Eibarko taldeak puntu bonusa eskuratu zuen eta, jarraian, Ibon Ganzarain prestatzaileak aukera eman zien gazteenei mailara egokitzen joateko. Garaipen handia Eibar Rugby Taldearena, baja askorekin (bataz ere, hiru laurdenetako lerroan) joan baitzen Durangoko derbira, bigarren itzulian bere zelaian sendotasuna erakutsi duen Durangoren aurrean. Emaizta horrekin eibartarrak sailkapeneko 3. postuan finkatu dira.

### Neskek denboraldia amaitu dute

Euskal Herriko Emakumezkoen Ligaren azken jardunaldian denboraldiko partidurik onena jokatu zuten eibartarrek eta Getxo lidderrari entsegu bat baino gehiago sartzea lor-



Gurasoak gazteenei animatzen.

tu dioten bakarrak izan dira (Lucia Moyak eta Amaur Mayok egin zituzten entseguak). Hala ere, bizkaitarrak 43-12 nagusitu ziren.

### Gazteenen entrenamendu gisakoa

14 urtetik beherakoek Gipuzkoako ligan, Eibar Rugby Taldeak Irun hartu zuen domekan eta baita erraz nagusitu ere. 10. minuturako, bost entsegu eta lau gauzatze lortuak zituzten (43-0). Talde horretako Markel Lomana eta Oier Eguren Gipuzkoako selekzioarekin izango dira asteburuan.

## “Eibar Primeran” ETB-1ean zapatuan



**ETB-1 Eibar Foball Taldearen inguruko programa dabil prestatzen azken egunotan.** Klubarekin lotutako hainbat lagun irtengo dira dokumentalean: Jose Eulogio Garate, Xabi Alonso... Taldearen kirol jarduera bikaina tratatuko dute, kapital zabalkuntzarekin batera. Programa zapatu gauean eskainiko dute, 21.30etatik aurrera.

Taldeak, bestalde, partidu garrantzitsua du bihar Mirandesen zelaian, Anduvan (18.00-etan, ETB-1en zuzenean), lehen postuari eusteko borrokan. Zaletuek ere bero-bero jarraitzen diote Garitanoren taldeari eta, horrela, sei autobus bete dira Mirandara joateko.

## Lau gimnasta Espainiako txapelketara

Malen Txurruka, Nahia Arguiz eta Elene Varela infantilak eta Elena Sodupe kadetea izango dira Ipuruako ordezkariak apirilean Guadalajaran jokatu den banakako Espainiako oinarriko txapelketan. Laurak txartela eskuratu zuten aurreko zapatuan Ipurua kiroldegian jokaturako Euskadiko Oinarriko Txapelketan; hor infantil mailakoak mizekin egindako ariketan lortu zuten sail-

kapena. Federatuen mailan, bestalde, Jenifer Hernandezek (pelotarekin) eta Irati Yartzak (aroarekin) Euskal Ligako lehenengo fasea jokatu zuten. Biak ere 8. postuan amaitu zuten eta apirilaren 12an bigarren fasea jokatu dute Gasteizen, Espainiako banakako txapelketan parte hartzea helburu dutela. Bihar Ipuruako alebin A, kadete B eta jubenil mailakoak Ibarra izango dira.



## berriak

### SASKIBALOA

Azken asteburuan aspaldi gertatzen ez zena gauzatu zen eta bai Ruibalek (58-39 Oarsoari) eta baita Katu Kalek ere (37-59 Mutrikun) euren partidua irabazi zituzten. Hala ere, bolada txarra eten arren, Ruibalek oso aukera gutxi du mailari eusteko.



### ATLETISMOA

Bihar arratsaldean jokatu da Azkoitia-Azpeitia maratoi erdiaren 21. edizioa. Proba horrekin batera, ordu laurden lehenago hasita, 7'5 km.-ko herri-lasterketaren bigarren edizioa jokatu da, proba handiaren telonero gisa. Diego Garzia omenduko dute berriro ere.

### ESKUBALOA

Arrasateko Ford Mugarri 26-27 irabazi ondoren, Somos Eibar matematikoki sailkatu da Ohorezko B Dibisiara igotzeko fasea jokatzeko. Horko arerioak apirilaren 14an Madrilen egingo den zozketaren ondoren ezagutuko dira. Harrobiko taldeek 13 partidu jokatu zituzten azken asteburuan.

## Trio Medianoche eta Voces y Cuerdas Ermuan

Latinamerikako abesti ezagunak eskaintzeko kontzertua emango dute Eibarko Trio Medianoche eta Voces y Cuerdas taldeek Ermua Antzokian, maiatzaren 30ean 22.15etatik aurrera. Sagardo sasoia zabalteko Iruki sagardotegian antolatatu zuten ekitaldian talde biei omenaldia egin zieten eta, orduan egin zuten mo-

duan, Ermuan "En recuerdo a los Panchos" izenburuari jarraituta antolatatu duten kontzertuan biek elkarrekin jardungo dute kantuan berriz ere. Emanaldirako sarrerak 8 eurotan ipini dituzte salgai, [www.kutxabank.es](http://www.kutxabank.es) webgunean, Kutxabank-eko kutxazainetan eta Ermuko Lobiano kultur etxean.



Voces y Cuerdas Ermuan izango da maiatzaren 30ean.

### Opus Cuatro-rekin batera

Bestalde apirilaren 11n (barixakuan), 20.30etatik aurrera kontzertua emango dute Opus Cuatro taldekoek, Voces y Cuerdas Eibarko taldeak lagunduta. Opus Cuatro taldeko-

ak 28. bira egiten dabilta Europa eta hamar herrialdetan kontzertuak eskainiko dituzte, horietako bat gurean. Nahi izanez gero, emanaldirako sarrerak Kutxabank bitartez aldeztatik aurretik erosteko aukera dago.

## Martxoa Beleko tabernan

Hilabete honetarako agenda beteatu dute Beleko tabernan. Aurreko barixakuan Ados Duok kontzertua eman zuen eta martxoa amaitu bitartean beste hainbat jarduera hartuko ditu Bista Eder kaleko tabernak, gaurtik bertatik hasita: 19.30etatik aurrera Beñat Gaztelumendi eta Alaia Martin bertsolariek saioa eskainiko dute. Domekan, Zurrumuru antzerki taldekoek "Andrina Basandrina" ipuin kontalari saioa egingo dute 17.30etan eta hilaren 28an, gauerditik aurrera Igor Arzuaga "Mara"-k kontzertua emango du. Horrez gain, Maria Romero artista eibartarrak erakusketa inauguratu zuen atzo.



Ipuin kontalaria izango da domekan.



## Bertso-bazkaria Kultun

Datorren astean, egunean Kultu tabernan bertsoekin gozatzeko aukera ederra izango da, 20.00etatik aurrera Beñat Gaztelumendi eta Agin Laburu bertsolariek eskainiko duten saioan. Arrate Kultur Elkarteak eta Hankamotxak bertso eskolak antolatutako programa biribiltzeko, bertso-bazkaria egingo da martxoaren 29an, 14.00etan Arrate Kultur Elkartearen bertan, Maialen Lujanbio eta Unai Agirre bertsolariekin. Bazkarirako txartelak Kultun eros daitezke, 25 eurotan (23 eurotan, Arrate Kultur Elkarteko bazkide izanez gero).



## Fran Lasuenekin Birjiñapen afaltzen

Aurreko asteko barixakuan Birjiñape tabernan afaldu zutenek, menu ederrarekin ez ezik musikari eibartarrak zuzenean eskaini zituen abestiekin gozatzeko aukera izan zuten. Lasuenek, David Nanclares gitarrajoleak lagunduta, sei abesti eskaini zizkien afarira joandakoei, tartean "Ardurabakuen Aeroplanoa" izenburukoa (Marcano-ren koplak izenarekin ezagunagoa den 1931-ko abestia). Horrekin batera Lasuenek Eguen Bandarekin eta Oskorrirekin jardun zueneko beste batzuk kantatu zituen afalostean.

## Iñaki Alegria, UEU-ko zuzendari

Iñaki Alegria informatikariak beteko du aurrerantzean UEU-ko zuzendari kargua, Karmele Artetxeren lekukoa hartuta. Udako Euskal Unibertsitateak zapatuan egindako batzar nagusian hautatu zuten zuzendari berria. Donostian 1958an jaioa, Alegria Informatikan doktorea, EHUko irakaslea eta Ixa taldean ikerlaria da. 1984az geroztik UEUkide da eta sei urte eman ditu bertako zuzendaritzan. Horrekin batera, EHUko Informatika Fakultateko dekanordea eta Langune elkartearen zuzendaritza-taldea izan da orain dela gutxi arte. Nazioarteko aldizkari eta kongresuetan 100 bat argitalpen egin ditu eta Inguman euskeraz 90 erreferentzia dauzka.





## "Euskararen Espektakulue", 19.30etan Portalean

Oihan Vega bergararrak "Euskararen Espektakulue" eskainiko du gaur 19.30etan Portalean (areto nagusian), ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. "Zergatik praktikatzen du gu sexua erderaz?" izenburuko ikuskizunak gure hizkuntzarakiko jarrera aztertzen du, umore klabean eta musikarekin lagunduta. Ikuskizunaren ardatza "El Club de la Comedia" saioan eskaintzen diren monologoaren estiloari jarraituko dion bakarriketak osatzen du. Gitarra lagun duela, DJ-urkezleak musikarekin lagunduta eskainiko du euskararen inguruko bere hausnarketa. Ordu eta erdi inguruko iraupena duen ikuskizunerako sketch eta laburmetriak Kepa Errasti gidolariak prestatu ditu. Ikuskizunaren aurretik Portalean bertan sarrerak erosteko aukera egongo da (3 euro).



## laburrak

### ZUHATZARA IRTEERA

Gazteentzat Zuhatzara irteera antolatzen dihardute Indianokua gaztelekuan, maiatzaren 10 eta 11rako. Izena emateko azken eguna martxoaren 30a izango da eta prezioa 18 eurokoa da.

### ALDAKETAK ZINEAN

Asteburu honetan Coliseoan eskainiko diren zine emanaldietan hainbat aldaketa izango dira: batetik, zapatuan 19.45etan "El lago de los cisnes 3D" opera proiektatuko dute antzokian (9 euro); eta martitzenean ere zinea emango dute, astelehenean antzerkia taularatuko denez zinerako areto txikiak baino ezin izango direlako erabili.

### KORO GAZTEA

Martxoaren 29an 17.30etan Eibarko Koro Gazteak kontzertua emango du El Corte Inglesean, ekitaldi aretoan (sarrera doan).



## Erakusketa berria Topalekuan

Gaur arratsaldean, 19.00etan inauguratuko dute "Espazio berberaren irakurketa ezberdinak" izenburuko erakusketa Topalekuan. Berreibar Ekimen Kulturalaren eskutik antolatutako erakusketa apirilaren 13ra arte egongo da ikusgai, ohiko ordutegian: astegunetan 19.30etatik 21.00etara eta asteburuetan 12.00etatik 14.00etara eta 19.30etatik 21.00etara. Erakusketa zati bitan banatu dute: "Helduaren ikuspuntua" izenburuko Ane Ojangu-ren argazkiekin osatu dute eta "Umeen begirada" izenburukoan, berriz, Maite Arriagak bideratuta umeez egindako marrazkiak ikusteko aukera egongo da.



## Txistularien kontzertua domeka eguerdian

Usartza Txistulari Taldeak domekan kontzertua emango du 12.30etan, udaletxeko arkupeetan. Elena Perezek zuzenduta, pieza hauek joko dituzte: "Aitorrena" (Orripekua, J. Etxeandía), "Adiskide Euskorra" (Sonatxoa, J.I. Ansorena), "Jokaxoak" (Alex Iribar), "Kañoietan" (Rapsodia, Isidro Ansorena), "Labirulena" (Rapsodia, J.I. Ansorena), "Kontrapasa" (Raimundo Sarriegi) eta "Lau atalako alborada" (B. Laskurain).



## Transmisioaren Mintegirako izen-ematea

Maiatzaren 6an Portalean egingo den IV. Euskeraren Transmisioaren Mintegian parte hartu nahi dutenek martxoaren 31tik apirilaren 30era bitartean izango dute izena emateko aukera, normalizazioa@etakitto.com helbidera idatzita edo 943200918 telefono zenbakira deituta (Ainara Labado). Egun osorako prezioa 25 eurokoa da (bazkaria barne) eta norbaitek bakarrik goizez edo arratsaldez joan nahi badu horretarako aukera badauka, egun erdirako izena emanda (15 euro). ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatutako mintegia egun osokoa izango da (09.00etatik 18.00ak arte) eta euskeraren transmisioan adituak diren hainbat lagunek hartuko dute parte, hizaldi eta aurkezpenak eskaintzen.





# Antzerki Jardunaldia



**Martxoak 21**  
**barixakua**  
**20.30**  
**Coliseoan**  
**90 min. / 15 euro**

## “Conversaciones con mama” (FOCUS)

ZUZENDARIA: JUAN ECHANOVE

ANTZEZLEAK: MARIA GALIANA, JUAN ECHANOVE

Bi aktore paregabe datoz gurera, oraingoan komedia erromantiko eta maitekorrekin, gutako edozeinen etxeetan gerta daitekeen istorio hurbil batekin. Semeak estatus handiko bizimodua galdu eta amarengana doa bisitan, laguntza eske. Bizitza bera, gordinean.



**Martxoak 23**  
**domeka**  
**20.30**  
**Unibertsitatean**  
**75 min. / 11 euro**

## “La anarquista” (MIRANDEZ PROD.)

ZUZENDARIA: JOSE PASCUAL

ANTZEZLEAK: MAGÜI MIRA, ANA WAGENER

Antzezlanak bi pertsonaia kontrajarzten ditu: alde batetik, preso egon arren buruz askea den emakumea eta, bestetik, aske dagoena baina bere aurreiritzien mendeko bizi dena. Erritmo eta intentzio neurtuari esker, lortzen dute pertsonaien grina eta egia isurtzea.



## Euskeraz

**Martxoak 24**  
**astelehena**  
**20.30**  
**Coliseoan**  
**60 min. / 11 euro**

## “Zazpi aldiz elur” (TANTTAKA)

EGILEA: BERNARDO ATXAGA

ZUZENDARIAK: MIREIA GABILONDO, KIKE DIAZ DE RADA

ANTZEZLEAK: MIREIA GABILONDO, IÑAKI RIKARTE

Bernardo Atxagaren artikuluan oinarrituta, eta Laboaren musika lagun, haren inguruko paisaia eratu dute taula gaineko bost interpreteek. Atxagaren testuak, gogoeta pertsonalak eta bere abestietako hitzak ganoraz josi eta Laboaren elkartzan ziren artista eta pertsona aurkezten dituzte, osotasun baten modura. Fernando Bernuesen eszenografiak plastiko zeharragietan inguratu du eremu eszeniko zuritua, eta elur-maluten proiektzioek edertu dituzte pasartearen arteko trantsizioak. Zazpi atalak iragartzeko, filmetako hasierako segundoak seinalatzen dituzten zenbakiak erabili dira eta zinema mutuak ere bere presentzia du pianoko estalkian proiektatzen diren irudi hautatuei esker. Eszena hori izan daiteke lan honetako unerik estimagarrienetarikoa, Iñaki Salvadorren pianoan hainbat kanta ezagun irudi mutuen lagun bihurtzen direnean.

Elementuen arteko elkarketa aberasgarri hori behin baino gehiagotan gertatzen da. Gabilondok prestaturiko dramaturgia lasaia ederto egokitzen da Atxagaren testuaren barne erritmora eta Laboaren figurak eskatzen duen gogoeta pausatura. Gabilondok aktore lana ere egiten du, txukun eta dotore, eta berarekin batera diharduen Iñaki Rikartek gaitasun eszenikoa erakusten du, batez ere bigarren atalean, Aveyrongo basamutilla gorputzerakoan. Musika arloak garrantzi handia hartzen du emanaldian zehar: Iñaki Salvador (pianoa eta akordeoia) eta Angel Unzu (gitarra) Maria Berasarteren ahotsaren osagarri dira. Laboaren zenezaren gogorapen goxo bat etxera eramateko modua. AGUS PEREZ



**Martxoak 25**  
**martitena**  
**20.30**  
**Unibertsitatean**  
**120 min. / 15 euro**

## “Magia Potagia”

KREAZIOA ETA MAGIA: JUAN TAMARIZ

Magoen magoa hamabi urte igaro ondoren itzultzen da Eibarko Antzerki Jardunaldietara. Ikuskizun honetan bere numero hoberenak eskainiko dizkigu: beti bezala, umorez, telepatiaz eta bat-batekotasunez beteta. Ikuskizuna zazpi atalez osatua dago eta harridura, txundidura eta misterioa aurkituko ditugu saioan.



**Martxoak 27**  
**eguna**  
**17.30 eta 21.00**  
**Unibertsitatean**  
**80 min. / Doan**

## Asier Errasti Laburmetraien XIV. Jaialdia

“Formen fila” / Raul Mancilla / Manuel Salas eta Enrique Asenjo  
“Division Azul” / Sergi Marti / Marc Martinez eta Alvaro Cervantes  
“On egin” / Jon Aitz / Anartz Zuazua eta Arkaitz Gartzandia  
“Democracia” / Borja Kobeaga / Alejandro Tejeria eta Oscar Ladoire  
“Sinceridad” / Andrea Casaseca / Katy Manver eta Javier Laorden  
“Pipas” / Manuela Moreno / Marta Martin eta Saida Benzal  
“Elkartea” / Kote Camacho / Iñaki Beraetxe eta Iker Galarza  
“Hoy quiero confesar” / Manuel Aguilar / Elena Irueta eta Kandido Uranga

# laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, LUKEN!, haraiñegun bi urte egin zenduaz-en-eta. Muxu haundi bat zuretzat eta aitarentzat famelixaren partez.



Zorionak, ANE, bixar hiru urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen eta, batez be, Leireren partez gure etxeko potxolarentzat.



Zorionak, PATXI, gaur 5 urte haundi betetzen dozuz-eta. Disfrutatu eta muxu haundixak Miren, aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, GALDER, haraiñegun hiru urte egin zenduaz-en-eta. Txokolatzeko muxuak gure printzipearentzat. Famelixaren partez.



Zorionak, MARKEL, atzo bi urte egin zenduaz-en-eta. Muxutxuak famelixa guztiaren partez.



Ongi etorri, MARA!! Hillabetia egin dozu. Zorionak. Muxutxuak famelixaren partez, txapeldun!



Zorionak, ANDER Salaberria, hillaren 25ian bost urte beteko dozuz-eta. Muxu bat etxekuen partez.




Zorionak, AINARA, astelehenian zazpi urte beteko dozuz-eta. Eibarko aitxita eta amamaren partez.



Zorionak, KEPA, mutil haundi, martitzenian 5 urte bete zenduz-en-eta. Muxu pillo bat famelixaren partez.



Zorionak, NAlA Gonzalez Valenzuela, gaur bi urte egingo dozuz-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, MARKEL Artetxe Artetxe (domekan 15 urte beteko dozuz) eta OIHANE Artetxe Leyaristi (hillaren 26xan 10 urte egingo dozuz). Famelixaren partez.



Zorionak, UXUE eta NEREA, hillaren 19xan zuen lehelengo urtia bete zenduz-en-eta. Muxu haundi bana aitaxo eta amatxoren partez.



Zorionak, MAIALEN, gaur bost urte betetzen dozuz-eta- Laztan haundi bat etxeko guztien eta, batez be, lbairn partez.



Zorionak, UNAX, atzo bederatzirte egin zenduaz-elako. Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Jokinen partez.

## hildakoak

- Ricardo Barriga Domínguez. 75 urte. 2014-III-14.
- Jose Altzibar Agirre. 85 urte. 2014-III-16.
- Maritxu Berregi Ezenarro. 90 urte. 2014-III-17.
- Juan Luis Alegria Bueno. 56 urte. 2014-III-17.
- Angelita Ibarra Aranzabal. 102 urte. 2014-III-18.
- Jose Manuel Regil Iriarte. 76 urte. 2014-III-19.

## jaiotakoak

- Ane Calleja Perez. 2014-III-6.
- Paul Gabilondo Murga. 2014-III-13.
- Lander Fernandez Garcia. 2014-III-14.
- Elene Aranzabal Martin. 2014-III-15.


## zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

**22an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**23an: 17.00, 20.00**  
**24an: 20.30**  
**25ean: 20.30**

**"Alabama Monroe"**

Zuzendaria: Felix Groeningen



(2 ARETOAN)

**22an: 17.00, 19.45, 22.30**  
**23an: 17.00, 20.00**  
**24an: 20.30**  
**25ean: 20.30**

**"Cuento de invierno"**

Zuzendaria: Akiva Goldsman



(ANTZOKIAN)

**22an: 17.00, 22.30**  
**23an: 20.00**  
**25ean: 20.30**

**"8 apellidos vascos"**

Zuzendaria: Emilio M.-Lazaro



ZAPATUAN, 19.45etan, ANTZOKIAN:

**"El lago de los cisnes"** dantza-funtzioaren proiektzioa (3D), diferituan Londreseko Sadler's Well Theatretik.

(ANTZOKIAN)

**23an: 17.00**

**"Las aventuras de Peabody"**

Zuzendaria: Rob Minkoff





## BARIXAKUA 21

### XTREMO NORTE

**15.00.** "Katmandu-Everest" proiektzioa. Periko Iriondo.

**16.00.** "Ekintzailetasuna, ametsak lortzea" hitzaldia. Jon Odriozola.

**17.00.** DYA. Jose Luis Artolaren eskutik.

**18.00.** Aire-kirolak: base-jauzia, wingsuit, speedfly. ZionFlyers-eko Alex Berastegiren eskutik.

**19.00.** Edu Uribe ibilaldi luzeetako korrikalariaren hitzaldia.

**20.00.** "Sunyata Lapse", TheOutBoundfamily-ren dokumentala. Ibon Mugerza. Unibertsitate Laboralean (San Andres aretoan).

### EIBARKO KANTUZALEAK

**19.00.** Entsegu. San Andres elizan.

### MONOLOGO-SAIOA

**19.30.** "Euskararen Espektakulue", Oihan Vega (3 euro). Portalean.

### BERTSO-SAIOA

**19.30.** Alaia Martin eta Beñat Gaztelumendi. Belekun (Bista Eder, 2).

## ZAPATUA 22

### TAILERRA

**10.00.** "50 sombras de Grey". Andretxean.

### UDABERRI FEST

**11.00.** Futbolin txapelketa.

**14.00.** Bazkaria.

**16.00.** Futbolin txapelketa.

**19.00.** Erromeria eta kontzertuak.

**22.00.** Elektrofesta. Eibarko gaztetxean.

### GURE ESKU DAGO

**12.00/15.00 eta**

**19.00/21.00.** Metro, kamiseta... salmenta eta txosna. Untzagan.

### XTREMO NORTE

**12.30/15.00.** Muturreko kirolak. Errebalen.

**18.00.** Muturreko kirolen proiektuen aurkezpena.

**19.30.** "Next Stop: Greenland" dokumentala.

**20.30.** Sari-banaketa ekitaldia. Unibertsitate Laboralean.

### TAILERRA

**17.30.** Kartulinazko txotxongiloak umeentzat. El Corte Ingles-ean.

### KONTZERTUA

**00.00.** The Ice Cream (Eric Clapton-en abestiak) taldea. Ez Dok tabernan.

## DOMEKA 23

### GOI-ARGI

**12.00.** Elkarteko bazkideen meza. San Andres elizan.

**19.00.** Urteko batzarra eta Goruntz abesbatzaren emanaldia. Goi Argin.

### GURE ESKU DAGO

**12.00/15.00.** Metro, kamiseta... salmenta eta txosna. Untzagan.

### KONTZERTUA

**12.30.** Usartza Txistulari Taldea, Elena Perezek zuzenduta. Udaletxeko arkupeetan.

### IPUIN KONTALARIA

**17.30.** Zurrumurruren "Andrina Basandrina". Beleko tabernan (B. Eder).

## ASTELEHENA 24

### IKASTEN

**10.00.** "Mirando al cielo" astronomia topaketa. Beheko Tokian.

## MARTITZENA 25

### IKASTEN

**10.00.** "Las siete maravillas de la antigüedad". M<sup>a</sup> Jose Noain. Armeria Eskolan.

### IKASTEN

**17.00 eta 18.30.** Joskintza tailerra. Portalean.

### BILERA INFORMATIBOA

**20.00.** Nekane Pastor ingeles akademia. Laboral Kutxan (J. Etxeberrian).

## EGUAZTENA 26

### IKASTEN

**10.12.** Mendi-ibilaldia: Zarautz- Urdaneta- Elkano- Zarautz. Trenaren irteera, Ardantzatik (Estaziñuan, 10.14etan).

### TAILERRA

**18.30.** Lorezaintza. Flores Blanca-ren eskutik. El Corte Ingles-ean.

## EGUENA 27

### IKASLEEN GREBA

**08.00.** Eibarko Ikasleen Mugimenduak deituta. Eskuorrien banaketa, unibertsitatean.

**10.00.** "Kaleak hartu", Untzagatik abiatuta.

**12.00.** Ikasle Martxa, Untzagatik abiatuta.

**14.00.** Bazkaria.

**17.30.** "Kaleak hartu", Untzagatik abiatuta.

**18.30.** Arkatzak zorroztera goaz!

**19.30.** Manifestazioa, Untzagatik hasita.

### IKASTEN

**10.00.** "Picassoren Gernika" hitzaldia. Ricardo Aldama. Armeria Eskolan.

### TAILERRA

**18.30.** "Aurpegiaren fotobabesa: prest egon eguzkiaz gozatzeko". ISDIN etxea. El Corte Ingles-ean.

### KALEETAN KANTUZ

**19.30.** Entsegu. San Andres elizan.

### BERTSO-SAIOA

**20.00.** Tabernako saioa. Agin Laburu eta Beñat Gaztelumendi. Kultun.

## ikastaroak

### ✓ Fandango eta arin-arin ikastaroa

**Noiz:** Martxoaren 26tik aurrera eguaztenetan, Kultun.  
**Izen-ematea:** 943202299 / arratekultu@gmail.com

### ✓ Arduino ikastaroa

**Noiz:** Martxoaren 29an. Gaztelekuan.  
**Izen-ematea:** Pegoran.

### ✓ Geolokalizazio Aktiborako Tailerra

**Noiz:** Apirilaren 1ean eta 3an. Portalean.  
**Izen-ematea:** Pegoran.

## HOROSKOPOA

### ARIES

Zure albokoak pozik ikusiko dituzu eta, zeure onenean ez bazaude ere, horrek pozituko zaitu. Laga besteei laguntzen.

### TAURUS

Lapurtu duzun hori bere jabeari bueltatuko diozu. Birritan pentsatu eta berehala lotsa sentitu duzu. Ez zara lapur ona, badakizu!

### GEMINI

Zurekiko segurtasun handia sentituko duzu eta horrek indartu egingo zaitu. Arazoak? Zer dira horrelakoak zuretako?

### CANCER

Gauza bat da ilusioa izatea eta beste bat mirari bat itxarotea. Miraririk gabe ere, ez zara triste ipiniko. Inolaz ere ez!

### LEO

Dirua aurreztu beharko zenuke datozen gastuetarako. Alde batetik edo bestetik, dirua etengabe joango zaizu. Prest egon!

### VIRGO

Ez dakit nork esango zizun ondo geratzen zaizula erropa hori, baina ez dizu inolako faborerik egiten. Guztu onekoa zinen ba...

### LIBRA

Besarkadak, laztanak... ez zaizu ezer faltako egunotan. Pasioz betetako egunak izango dira zuretako. Eta asteburukoak...

### SCORPIUS

Asteburua aprobetxatu beharko zenuke aspaldian espero zenuen bidaia hori egiteko. Une aproposena duzu hau!

### SAGITTARIUS

Burumakur hasiko duzu astea, baina amaiera zoragarria izango da. Guzti hori barre egiteko duzun erraztasunari esker.

### CAPRICORNIUS


Zerbait handia egin beharko duzu lagun hori berreskuratzeke; bestela, agur betirako! Min handiegia egin diozu.

### AQUARIUS

Kirola egiten hasiko zara aste honean, baina igarriko duzu ez zaudela sasoiko. Lasai, martxa hartuko duzu-eta.

### PISCIS

Arazoen aurrean ebazpen onak egingo dituzu eta konponbide erraza aurkituko. Hurrengoan saiatu arazoak ez sortzen.



## erakusketak

### ✓ Martxoaren 31ra arte

“GRAFIKAK” emakumeen erakusketa kolektiboa. *Portalean.*

**PEDRO ARRIOLAREN** “Japon” argazki erakusketa. *El Ambigu tabernan.*

**ANTONIO VILLANUEVAREN** argazki erakusketa. *Portalea tabernan.*

**ANDRES LOZANOREN** “Aste Santua” argazki erakusketa. *Depor tabernan.*

**CARLOS TRUKOREN** margo erakusketa. *Deika tabernan (San Juan, 1).*

**MARIA ROMEROREN** erakusketa. *Beleko tabernan (Bista Eder, 2).*

### ✓ Apirilaren 13ra arte

“ESPASIO BERBERAREN IRAKURKETA EZBERDINAK” erakusketa, Berreibar Ekimen Kulturala proiektuaren eskutik. *Topalekuan.*

### ✓ Apirilaren erdialdera arte

**VANESSA ATECA-REN** margo erakusketa. *Casanella Studion (Juan Gisasola, 16)*

## farmaziak

### ✓ barixakua 21

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

### ✓ zapatua 22

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

### ✓ domeka 23

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxebarria, 7)

### ✓ astelehena 24

EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

### ✓ martitzena 25

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

### ✓ eguaztena 26

EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

### ✓ eguena 27

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

### ✓ barixakua 28

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

## 2014 urte osorako

### GAUEZ

**Azkue** (T. Etxebarria, 4)

## lehiaketak

✓ **Made in Eibar:** Eibarko industriarekin lotutako euskerazko dokumental lehiaketa. **Sariak:** Atal ezberdinetan 3.000 euro bekatan. Lehiaketan parte hartzeko ikastaroak: Apirilaren 5, 12, 14, 15 eta 16an (Itzamnak emanda, euskaraz). **Izen-ematea:** Martxoaren 17tik 28ra.

✓ **XVII. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa:** **Gaia:** Aratosteak. **Lanak aurkeztea:** Arrate Kultur Elkartean, apirilaren 1erako. **Sariak:** 160 euro, 100 euro eta 60 euro.

✓ **Berreibar Paisajintza Lehiaketa:** **Lanak aurkeztea:** apirilaren 22ra arte.

✓ **Toribio Etxebarria Sariak:** **Lanak aurkeztea:** www.toribioechevarria.com

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa .....	943 82 01 10
KIUB .....	943 20 38 43
Epaitegia .....	943 03 34 00
Iberdrola .....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia .....	943 03 25 00
Torrekuia .....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza .....	943 53 17 00
Eusko Tren .....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

## autobus ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Lanegunak: 07.00etatik 9.50etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.55. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 13.30etara ordu, 15.00, 15.50etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

**EIBAR-BILBO.** Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

**EIBAR-GASTEIZ.** Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.50etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

**EIBAR-IRUÑEA.** Lanegunak: 07.45 eta 13.30. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

**EIBAR-ARRATE.** Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

**EIBAR-ELGETA.** Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

**EIBAR-MENDARO.** Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

**EIBAR-LOIU.** Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

## tren ordutegiak

**EIBAR-DONOSTIA.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.15 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

		2		5		3	1
5			4	6			2
			1				4
2		9	7		5	8	3
	1				8		
	8			3	6		5
7	5			8		3	

## SUDOKUA

8	3	4	6	5	2	9	7	1
7	6	2	8	9	1	3	5	4
9	5	1	4	3	7	8	2	6
3	4	7	2	8	9	1	6	5
5	9	6	7	1	3	4	8	2
1	2	8	5	4	6	7	9	3
2	8	9	1	6	4	5	3	7
6	1	5	3	7	8	2	4	9
4	7	3	9	2	5	6	1	8

AURREKOEN EMAITZA



## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun eta trasteroa. Ilogailua. 130 m<sup>2</sup> erabilgarri edo 156 m<sup>2</sup> eraikiak. Argitsua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 626-203838 eta 699-495249.
- Amañan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta balkoi itxia. Berogailua. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 607-808827.
- Babes ofizialeko pisua salgai Barakaldo kalean. 75 m<sup>2</sup>. Trasteroa eta garajearekin. Tel. 655-706983 eta 647-720800.

### 1.2. Errentan

- Pisua alokagai Jardifeta 19an (1. eskuma). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta terraza. Kalefakzioa eta igogailua. 450 euro, negoziagarriak. Tel. 943-202665.
- Pisua behar dut alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 632-192408.

## 3. Lokalak

### 3.2. Errentan

- Garaje itxia salgai Asua-Errekan. 27 m<sup>2</sup>. Aukera. Tel. 688-814562.
- Lokala alokagai Sostoarren inguruan. Prezio onean. Tel. 630-580010.
- Garaje itxia alokagai Abontzan. Auto handi baterako. Tel. 617-688311. Elena.
- Lokala alokagai Urkizun. 70 m<sup>2</sup>. Tel. 692-714685.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:  
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.  
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 697-697372.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-230789.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 602-186462.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko etxean edo erresidentzian eta sukaldari-laguntzaile jarduteko. Tel. 631-203287.
- Neska eskaintzen da edozein lanetarako. Orduka. Asteburuetan ere bai. Tel. 631-466742.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-488692.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Erreferentziak. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
- Mutila eskaintzen da soldatzailere jarduteko. Hainbat ikastaro egindakoa eta nazioarteko esperientziarekin. Tel. 659-176042.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 688-901667 eta 943-530908.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 636-976515.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 679-910991.
- Mutila eskaintzen da igeltsero eta pintore jarduteko. Esperientzia. Tel. 695-858174.
- Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko, nagusiak zaintzeko... Tel. 602-023214.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 638-205490.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 662-012834.

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

- Geriatrian ikasketak egindako mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko edozein ordutan. Esperientzia. Tel. 655-132769 eta 631-379089.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-855268.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 638-855268.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 606-354982.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 659-813248.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 642-609678.
- Neska eskaintzen da arratsaldean eta gauaz nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-841158.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 608-147559.
- Neska euskalduna eskaintzen da arratsaldean eta asteburuetan umeak zaintzeko eta kamarera moduan. Tel. 669-344278.
- Mutila eskaintzen da edozein lanerako. Esperientzia erakuntzan. Tel. 632-192408.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 620-258708.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 600-332954 eta 943-700229.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-395829.
- Geriatria ikasketak dituen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Orduetegi zabala. Tel. 652-532589.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta baita gauaz ere. Tel. 618-935929.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka eta baita gauaz ere. Tel. 639-020081.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduetegi zabala. Tel. 665-322150.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxea garbitzeko. Esperientzia. Tel. 675-358119.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta etxea zaintzeko. Esperientzia. Tel. 692-332871.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 670-831279.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-144954.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 654-281645.

### 4.2. Langile bila

- Kamarero/a behar da Eibarren. Bidalitxurik gabe. bar.ofertaempleo@gmail.com

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

- Pianoa salgai. Cherny markakoa. Tel. 669-179522.
- Bi ohe artikulatu salgai, bakoitza bere mandoarekin. Oso egoera onean. 0'90x1'90. Egurrezko oheburuko dotoreak opari. 800 euro biak. Tel. 669-179522. Ainara.
- Baby Monitor Philips Avent jaioberrirei entzutekoa salgai. Tel. 626-144098.
- Urmeentzako motxila salgai. Deuter markakoa. Tel. 626-144098.
- Baxu elektrikoa eta amplifikadorea (10 watt) salgai. Hasiberriandako. 150 euro. Tel. 660-155631.

### 6.3. Galdu/Aurkitu

- Ninfa txori bat galdu da Amaña inguruan. Sarituko da. Tel. 943-202398.
- Astelehen eguerdian eguzkirkako be-taurreko graduatuak galdu nituen Urkizun. Sarituko da. Tel. 639-503170.

### 6.4. Bestelakoak

- Mutiko batentzat 18-20 neurriko bizikieta hartuko nuke. Tel. 646-293311.

2.  
FASEA

[www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



Autobus  
zerbitzua  
hobetzeko  
prozesua



herritarrekin  
martxan en marcha

**AURKEZPEN  
EKITALDIA**  
**Apirilak 1**  
**18.30etan**  
**Portalean**

### GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: [www.garraioahobetzen.net](http://www.garraioahobetzen.net)



### PARTE HARTU

ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean  
Mugi/Lurraldebus txartela  
kargatzeko 20 euroko bonoak  
zotz egingo ditugu.

...eta kitto!-ren  
**itzulpen**  
zerbitzua

**ERA GUZTIETAKO  
TESTUAK  
ITZULTZEN  
DITUGU,  
euskaratik  
gaztelarrera,  
gaztelertatik  
euskarara,  
eta ingelesetik  
euskarara.**



- Urte askotako  
**ESPERIENTZIA** dugu.

- Bezeroaren  
beharretara  
**EGOKITU**ko gara.



[elkartea@etakitto.com](mailto:elkartea@etakitto.com)





# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABEKO ORDUTEGIA**



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsortuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**

Inplantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea. Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Inplantologian. Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea. Hartz-Estetikan Diplomatua.**

**Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**

Hartz-Estetikan Diplomatua.

**Autran Institutua, Bartzelona.**

Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

**Anibal Alonso Doktora.**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**

**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com